

UPV/EHUn AZPIEGITURA ZIENTIFIKOA ETA FONDO BIBLIOGRAFIKOAK EROSI ETA BERRITZEKO LAGUNTZEN DEIALDIA (2025):

Behin betiko ebazpena

Legezko epean eta eran jasotako dokumentuak berrikusirik eta kanpoko adituek egindako ebaluazio txostenak aztertuta, Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Batzordearen proposamenez (aurrerantzean IGBB), 2025eko uztailaren 22an argitara eman zen, Ikerketa Errektoreordetzaren web atarian, onetsitako eta ezetsitako eskarien behin-behineko ebazpena, eta hogeita hamar egun balioduneko epe bat zabaldu zen alegazioak egiteko.

Epe hori amaituta, eta alegazioak ebatzita, CIDIk 2025ko irailaren 24ko bileran aurkeztutako alegazioak aztertu ditu, eta behin betiko ebazpena emateko proposamena Ikerketaren arloko errektoreordeari bidali dio. Hortaz,

Erabaki du

Lehenengoa.- Emandako laguntzen zerrenda onartzea, lortutako azken puntuazioaren arabera ordenatuta.

Bigarrena.- Ebazpen hau Ikerketa Errektoreordetzaren web orrian argitaratzeko agintzea.

Hirugarrena - Behin betiko erabakiak administrazio bidea agortzen du eta honako bide hauek daude beraren kontra egiteko, inola ere ez aldi berean erabilia:

1. Lehenengo eta behin, aukerako berraztertze errekurtsua aurkez dakioke erabakia eman duen organoari berari hilabeteko epean, banakako jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontaktzen hasita.

Administrazio errekurtsu hori jarritz gero, eta errekurtsua jarri eta hilabeteko epean erabaki adierazirik jaso ezean, errekurtsua administrazio isiltasuna medio ezetsi dela ulertu beharko da. Horrela gertatuz gero, hurrengo atalean adierazitako auzibidera jotzeko aukera egongo da.

Kasu horretan, administrazioarekiko auzi errekurtsua jartzeko epea sei hilabetekoa izango da, errekurtsua ezetsizat joa izan den egunaren biharamunetik kontaktzen hasita (Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 legearen 46. artikulua).

Leioan, 2025ko irailaren 9an

Jon Umerez Urrezola
Ikerketa errektoreordea